GAO 2009ko azaroaren 19a. Zk. 220

BEASAINGO UDALA

Iragarkia

Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzaileko 70.2 artikuluan, azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretu bidez onetsitako Entitate Lokalen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduko 196.2 artikuluan eta 1955eko ekainaren 17ko Dekretu bidez onetsitako Korporazio Lokalen Zerbitzu Erregelamenduko 7.2 artikuluaren arabera, 2009ko urriaren 2ko Udalbatzan «Gizarte larrialdietarako etxebizitzaren araudiari» hasierako onespena eman zitzaion eta erabaki hori 2009ko urriaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Erreklamazioak aurkeztu ez direnez, behinbetiko onetsi da, eta horren ondorioz, testu osoa aldatuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen da.

UDAL-TITULARITATEKO GIZARTE-LARRIALDIETARAKO ETXEBIZITZAREN ARAUDI ERREGULATZAILEA

AURREKINAK

1996ko irailaren 16ko datarein Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean udal-titularitateko gizarte-larrialdietarako etxebizitzaren araudi erregulatzailea argitaratu zen, aurrikusi ezin diren gertakizunak direla eta, ohizko etxebizitza erabili ezinean gertatzen diren pertsonei eta/edo familiei sortzen zaizkien egoerei erantzuna eman beharrak eragin da.

Baina gaur egungo gizarte egoera eta zerbitzu honek Goierri eskualdekan sortutako beharrei erantzuna emateko eskaerak, araudi berri hau ezartzeko beharra eragiten du.

Araudi berri honen edukia, honako hau da:

- I. kapitulua: Xedapen Orokorrak.
- II. kapitulua: Funtzionamendu-arauak.
- Xedapen Gehigarria.
- Xedapen Indargabetzailea.
- Azken Xedapena.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Phoca PDF

Araudi honen helburua zera da: Udal-titularitateko Larrialditarako Etxebizitzaren erabilera erregulatzea.

2. artikulua. Helburua.

Etxebizitza horren helburua, aurrikusi gabeko ezbeharren bat edo gisako gertakariren bat jasan duten pertsonak eta/edo familiak denboraldirako bertan hartzea da.

3. artikulua. Kudeatzeko modua.

Beasaingo Udalak, zerbitzuaren zuzeneko prestakuntza bere gain hartzen du, kudeaketa Gizarte Ongizate Sailari lagaz.

II. KAPITULUA

FUNTZIONAMENDU-ARAUAK

4. artikulua. Sarbidea.

Etxebizitza horretarako sarbidea, honako hauek izango dute: Beasainen erroldatuta dauden pertsonak eta/edo familiak izan eta ezbeharren bat edo gisako gertakariren bat jasan dutelako etxebizitza-beharrean daudenek.

Leku libreak egonez gero, Goierriko edozein udalerrian erroldatuta dauden pertsonek ere, zerbitzua erabili ahal izango dute. Horretarako, beren kasua aurkezten duen udalerriak, finkatutako kostuaren prezioa ordaintzea bere gain hartu beharko du.

5. artikulua.

Etxebizitza horretan sartzeko eskaera guztiak, Udaleko Gizarte Ongizate Sailaren bitartez bideratuko dira.

6. artikulua.

Sartzeko eskaera jaso ondoren, kasua baloratu eta proposamena egingo zaio Gizarte-ongizate batzordeburuari eta honek zehaztuko du, pertsona eta/edo familia horrek etxebizitza horretan sarbiderik izango duen ala ez.

Erabakia, harik eta eperik laburrenean jakinaraziko zaio Gizarte-ongizate batzordeari eta honek berea izango du erabakia ezeztatzeko eskubidea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Phoca PDF

Bertan babestua izan den famili unitateko titularrak edo titularrek, udalaren etxebizitzaren lagapen-kontratua sinatu beharko dute:

UDAL-ETXEBIZITZAREN LAGAPEN-KONTRATUA

Beasainen, ... (e)ko ..... ren ..... (e)an

BILDURIK

Alde batetik, J./A ..... Beasaingo Udaleko Alkatea, NA-zk. ..... duena, Beasaingo Udalaren izenean eta bere ordezkari legez eta bestetik J./A., NA-zk. ..... duena.

AURREKINAK

1. Beasaingo Udalak, bere jabetzakoa duen etxebizitza bat egokitu egin du denboraldirako lagatzeko eta Larrialditarako Araudiko 2. artikuluan azaldutako arrazoiengatik sortutako larrialdi-egoerak konpontzeko.

2. ..... J.ak/A.ak udal-etxebizitza denboraldirako lagatzea eskatu du dela bide.

3. Udaleko Gizarte-zerbitzuek egiaztatu egin dute eskatzaileak azaldutako beharrizan-egoera. Eskatzaileak bestalde, badaki etxebizi-tzaren lagapenak behin-behineko izaera duela.

4. Bi aldeek ere elkarri, kontratuak egiteko eta obligaziotan sartzeko gaitasuna aitortuta, kontratu hau formaldu dute ondorengo baldintzen arabera:

BALDINTZAK

Lehena

Beasaingo Udalak jabetzan duen larrialdietarako etxebizitzaren erabilpena laga du.

..... J.ak/A.ak onartu egin du lagapena.

Bigarrena

Lagapen-epea, kontratu hau sinatutako egunetik zenbatutako hiru hilabetera mugatzen da eta baldintza hau ezagutzen du eta halaber onartzen ..... J.ak/A.ak, aldi berean etxebizitza hori ahal bezain laster uzteko beharrezkoak diren

Phoca PDF

kudeaketak egiteko konpromezua hartuz.

Salbuespen moduan, epea luzatu ahal izango da baina aldez aurretik ongi zurituta.

Hirugarrena

Lagatako etxebizitza, ... J.ak/A.ak eta larrialdi-egoera jasandako famili unitateak bakar-bakarrik okupatu ahal izango du.

Laugarrena

Lagapenaren hartzaileak/ek eta bere/n familiakoek ezin izango dute inolako altzari eta tresnarik sartu eta erabilpen pertsonaleko gauzak sartzea bakarrik onartuko da.

Bosgarrena

..... J.ak/A.ak aitortzen du aipatutako etxebizitza, honekin batera doan inbentarioan azaltzen diren altzari eta tresnekin hartu duela eta egoera onean hartu ere. Horregatik, baldintza berberetan mantentzeko konpromezua hartzen du eta kontratua amaitzean Udalari entregatu beharko dizkio, bai etxebizitza eta baita altzariak eta tresnak ere, baina jaso dituen egoera berean.

Seigarrena

..... J.ak/A.ak lagatako etxebizitzan ez du inolako obrarik egiterik izango. Era berean, Gizarte Ongizate Sailari izan litezkeen matxuren berri eman beharko dio konponduak izan daitezen.

Nahita edota zabarkeriaz egindako edozein kalte edo hondamendi ere, han bizi direnen erantzukizunekoa izango da eta konponketaren kostua beren gain hartu beharko dute.

Zazpigarrena

..... J./A. behartuta dago etxebizitzaren barruan familiaren arteko partaideen elkarbizitzak eta auzotar diren bizilagunen artekoak ere eskatzen dituzten portaera-arauak betetzera eta era berean, etxeko jabekideek etxea eraentzeko jarritako arauak betetzera.

Zortzigarrena

Phoca PDF

Etxebizitzan bizi direnek, beren mantenu-gastuak beren kontura ordaindu beharko dituzte eta kasu bakoitzean Gizarte Ongizate Sailak ezarritako kopurua ordaindu beharko dute.

Bederatzigarrena

Pobrezi egoera, hondamendi handia edota aseguru-konpainiarik eza izatea gertatzen den kasuetan, baloratuko da zerbitzuaren erabileragatik ordaintzeko obligaziotik salbuestea.

Hamargarrena

Egoiliarrek ez dute etxebizitza horretako giltzen kopiarik egiterik izango eta ezta beste pertsona batzuei giltzak uzterik ere. Egonaldia amaitzean, giltzak Gizarte Ongizate Sailean entregatu beharko dira

Hamaikagarrena

Beasaingo Udalak bere esku gordetzen du lagapen hau ezarritako epea baino lehen indarrik gabe uzteko aukera, beti ere, inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean noski:

a. Etxebizitza-gabezia eragin zuen egoera konpondua izan eta horren ondorioz beste etxebizitza izango balute.
b. Kontratu honetan hitzartutako baldintzetako edozein ere beteko ez balitz.

Adostasun-seinaletzat eta hitzarmen honen berrespen oso gisa, aipatutako data eta lekuan sinatu dute hitzarmen hau.

Beasaingo Udaleko Alkatea Lagapenaren hartzailea

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Araudi Honetako arauekin kontraesanean dauden maila bereko nahiz txi-kiagoko arau guztiak indargabetuta geratu dira, zehatz-mehatz Udal-titularitateko Gizarte-larrialdietarako Etxebizitzaren Araudi erregulatzailea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1996ko irailaren hamaseian argitaratutakoa.

AZKEN XEDAPENA

Araudi honetanaurrikusi gabeko gaiak, Udaleko Gizarte Ongizate Sailak ebatziko ditu edota kasua bada Gobernu-batzordeak edo Alkatetzak.

Araudi hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean.

Phoca PDF

Azken eguneratzea: 2010/02/25

Phoca PDF